

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

4742

AGINDUA, 2021eko irailaren 7koa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita EAEko gaueko aisialdiko establezimenduen titularrei zuzendutako laguntza-programa, eta haren deialdia egiten baita.

EAEko ostalaritza sektore dinamikoa da; ia 13.000 establezimenduk eta 64.000 langilek osatzen dute, eta balio handia ematen dio EAEko ekonomiari. 2020. eta 2021. urteetan, sektore kaltetuenetako bat izan da, agintariak SARS-CoV-2 birusaren hedapena geldiarazteko asmoz jarduerari ezarri dizkioten murrizketak eta mugak direla eta.

Hala, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua promulgatu zenetik, EAEko ostalaritzak ezin izan du ohiko moduan garatu bere jarduera. Eta, ostalaritza-sektorearen barruan, gaueko aisialdiak jasan du kalterik handiena.

Izan ere, 2020. eta 2021. urteetan emandako arau-xedapenak direla eta, Euskal Autonomia Erkidegoan, gaueko aisialdiko establezimenduek izan dute jarduera garatzeko muga gehien.

Osasuneko sailburuaren 2020ko ekainaren 18ko Aginduak –COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero– lehenbizikoz eman zuen gaueko aisialdiko establezimenduek irekitzeko baimena, edukieraren % 60rekin, dantza-pistarik gabe eta halakoen ordez mahaia jarrita.

Osasuneko sailburuaren 2020ko uztailaren 28ko Aginduak (honako honen eranskina aldatzen duena: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero) ezarri zuen gaueko aisialdiko establezimenduek goizaldeko 01:30a baino lehen itxi behar zutela.

Osasuneko sailburuaren 2020ko abuztuaren 19ko Aginduak (honako honen eranskina laugarren aldiz aldatzen duena: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriei buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero. Agindu hori uztailaren 28ko eta abuztuaren 7ko Aginduen bidez aldatu zen) gaueko aisialdiko establezimenduen itxiera deklaratu zuen, berriz ere.

Lehendakariaren 2020ko urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren (osasun publikoko prebentzio-neurriak hartzen baitira Alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko dena) 24. artikulua Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan III. eta IV. taldeetan sailkatutako establezimenduen itxiera deklaratu zuen, salbu eta beren jarduera I. eta II. taldeetarako indarrean dagoen araudiaren arabera garatzen bazuten eta dagokion udal-baimena bazuten.

Egoera horrek, hain zuzen, lehendakariaren ekainaren 18ko 30/2021 Dekretua (honako dekretu hau bigarren aldiz aldatzeko dena: maiatzaren 7ko 23/2021 Dekretua, lehendaka-

riarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak buruzkoa) argitaratu arte iraun zuen, 02:00ak arte luzatu baitzuen jarduera guztiak ixteko muga-ordutegia.

Lehendakariaren uztailaren 23ko 35/2021 Dekretuak (honako dekretu hau bigarren aldiz aldatzeko dena: 33/2021 Dekretua, uztailaren 7koa, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehaztekoa) 01:00a arte ezarri zuen jarduera guztiak ixteko muga-ordutegia, eta % 35eko edukiera, lokal eta instalazio mota guztietarako, muga espezifikoaren bat aplikatu behar dutenentarako izan ezik.

Azkenik, uztailaren 7ko 33/2021 Dekretu horren aldaketak, lehendakariaren abuztuaren 30eko 36/2021 Dekretuak eragindakoak, uztailaren 7ko 33/2021 Dekretua hirugarrenez aldatzen duenak, SARS-CoV-2 sareak eragindako infekzioa hedatzea geldiarazteko prebentzio-neurriak eguneratu eta zehazten dituenak, eutsi egiten dio diskotekak eta gaueko aisialdirako gainerako establezimenduak ixteari, otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren III. eta IV. taldeetan sailkatuta baitaude, salbu eta otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren erregulazioaren arabera.

Egoera horren aurrean, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egokitzat jo du laguntza-programa berri bat arautzea eta haren deialdia egitea, itxierak eta jarduera garatzeko mugek eragindako gaueko aisialdiko establezimenduen titularrentzat. Laguntza-programak helburu du sektoreko ahalik eta enpresa kopururik handienak aurrera egitea eta enpleguari eustea.

Programaren bitartez, gaueko aisialdiko establezimenduen titular diren norberaren konturako langileei edo autonomoei, mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei lagundu nahi zaie, COVID-19aren hedapena geldiaraztera bideratuta hartutako neurrien inpaktua minimizatzeko eta jarduerari ahalik eta lasterren berrekitea ahalbidetzeko. Beste erakunde batzuek hartutako neurri ekonomikoak osatzeko asmoz egin da programa; beraz, bateragarria da horiekin guztiekin.

Ondorio horietarako, gaueko aisialdiko establezimendutzat hartzen dira Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren legea garatzeko erregelamendua onartzen duen 17/2019 Dekretuaren 32.2 artikuluan jasotako III. taldean sailkatutako pubak eta taberna bereziak eta IV. taldean sailkatutako dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak, horiek ixteko ordutegia aipatu testuan ezarritakoarekin bat badator eta gaueko jarduera garatzeko baimena badute, betiere. Bi baldintza horiek egiaztatzeko, dagokion udalaren jarduera- eta/edo irekiera-lizentzia baliatuko da.

Aginduaren artikuluek ezarritakoaren arabera, establezimenduek garatzen dituzten jarduerak EJSNko talde batean sartuta egon behar dute edo zehazten diren EJJren epigrafeetako batean. Laguntza-programa honen onuradun izateko, nahitaez bete behar dira eskakizun horiek.

Laguntza-programa honek prozedura arin bat behar du, eskabideak ahalik eta lasterren izapidetu ahal izateko. Gainera, laguntzak kudeatzeko, komenigarritzat jo da gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun- eta efizientzia-printzipioak aplikatzea ahalbidetuko duten kontrolak errespetatzea. Era berean, kontuan hartuta elektronikoki egindako komunikazioak lasterragoak direla posta bidez egindakoak baino, elektronikoki soilik egingo dira eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta agindu honetan inplikaturako gainerako kudeaketak, APAPELen 14.3 eta 68.4 artikuluen arabera, interesdunak legez beste bat eskatzen duen ez-betetze espedienteak izan ezik.

Bestalde, kontuan hartuta gaueko aisia-establezimenduen titularrek premia erabili behar dituztela laguntzaren zenbatekoak, establezimendu horiek jarduera normaltasunez egin ezin izan duten aldi luzea ikusita, eta kontuan hartuta EAEko ostalaritza-elkarteek jarduera horren ildo nagusiak

ezagutzen dituztela, iritzi da hamabost egun balioduneko epea (hiru aste natural) nahikoa dela eskabideak aurkezteko.

EAEko ostalaritza-sektoreko enpresa-egitura kontuan hartuta, lau tarte ezarri dira laguntzak kuantifikatzeko; alde batetik, 17/2019 Dekretuan zehaztutako ordutegi-taldeak hartu dira kontuan, eta, bestetik, langile kopurua, barne hartuta bai autonomoak bai besteren konturako langileak. Hala, zenbateko finko bat ezarri da parametro horien arabera.

Laguntza-programak aurrekontu-kreditu nahikoa du.

Hori dela eta, lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) 15. artikulua, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 51.2 artikulua (azaroaren 11ko 1/1991 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari ematen dizkieten eskumenak baliatu ditut.

Eta, horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Laguntzen deialdiaren xedea.

1.– Laguntzen agindu honen xedea da oinarriak ezartzea EAEko gaueko aisialdiko establezimenduen titular diren norberaren konturako langileak edo autonomoak, mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak babesteko eta zuzenean laguntza ekonomikoa emateko, guztia ere COVID-19aren hedapena geldiaraztera bideratuta hartutako neurrien inpaktua minimizatzeke eta jarduerari ahalik eta lasterren berrekitea ahalbidetzeko.

2.– Xede horrekin bat etorriz, laguntza-lerro honen helburua da EAEko gaueko aisialdiko establezimenduen titular diren norberaren konturako langileen edo langile autonomoen, mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen zuzeneko galera ekonomikoak apaltzea; izan ere, COVID-19aren pandemiak eragindako zailtasun-egoerak mugatu egin du haien guztien jarduna, COVID-19ak sortutako osasun-krisialdia kudeatzeko hartutako neurrien ondorioz.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 12.600.000 eurokoak dira guztira, eta 2021eko ekitaldiko ordainketa-kredituari dagozkio.

Eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko zenbateko hori edo gehikuntza baten ondoriozkoa, baldin eta aurrekontuak aldatzen badira indarreko legeen arabera onartuta. Aldaketarik eginez gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Turismo eta Merkataritzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

3. artikulua.– Pertsona eta erakunde onuradunak.

1.– Agindu honetan jasotako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte beren konturako langileek edo langile autonomoek, ondasun-erkidegoek, sozietate zibilek, nortasun juridikorik gabeko unitate ekonomiko edo ondare banandu bat osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen elkar-teeke eta artikulua honetako 3. apartatuan zerrendatutako jardueren artean dauden EAeko gaueko aisialdiko establezimenduen titular diren mikroenpresek eta enpresa txiki eta ertainek, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan badago haien egoitza fiskala eta soziala, bai eta lantokia ere, eta haren jarduerak inpakturik pairatu badu COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu izanaren ondotik hartutako neurriak direla eta.

2.– Aurreko apartatuan adierazitako enpresek Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskinean ezarritako eskakizunak bete beharko dituzte. Erregelamendu horren bidez egiaztatzen da laguntza-kategoria jakin batzuk bateragarriak direla barne-merkatuarekin, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuta.

3.– Ondorio horietarako, gaueko aisialdiko establezimendutzat hartzen dira Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 32.2 artikuluko III. taldean sailkatutako pubak eta taberna bereziak eta IV. taldean sailkatutako dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak, horien EJSN kodea edo EJZ-ren epigrafea hurrengo apartatuan adierazitakoarekin bat badatoz eta ixteko ordutegiak honako hauek badira, betiere:

a) III. taldea: ixteko ordua, 02:30ean.

– Pubak eta taberna bereziak.

b) IV. taldea: itxiera-ordua, 04:30ean.

– Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak.

III. eta IV. taldeko kategorietakoa izatea eta ixteko ordutegia dagokion jarduteko eta/edo irekitzeko lizentziaren egiaztatuko dira, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean dagoena, dagokion udalak emana. Eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, eta bertan adierazi beharko da establezimendua III. edo IV. taldeko kategoriei dagokiela, bai eta ixteko ordutegi baimendua ere, bat etorri Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan aurreikusitakoarekin.

4.– Artikulu honetan adierazitako erakundeek jaso ahal izango dituzte laguntzak, baldin eta deialdi honetan aurreikusitako eskakizunak betetzen badituzte eta euren jarduera honako tipologia honetan sartzen bada:

Jarraian adierazitako diren jardueretako bat garatzea, ostalaritzako I. atalaren eremuan (lehen egitura-maila) eta apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretuak onartutako Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalaren R taldearen eremuan –Jarduera artistikoak eta jolas- eta entretenimendu-jarduerak–:

EJSN-2009 kodea	EJSN-2009 izena
5630	Edari-establezimenduak
9329	Beste jolas- eta entretenimendu-jarduera batzuk

Pertsona, erakundea edo taldea EJSN kode horietako batean dagoela ulertuko da, baldin eta kode horiei dagozkien ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe hauetako batean garatzen badu jarduera:

EJSN kodea	EJZ epigrafea	Epigrafearen testua
5630	16731	Kafetegi eta tabernetan. Kategoria berezikoak.
5630	16732	Kafetegi eta tabernetan. Bestelako kafetegi eta tabernak.
5630	16746	Kafetegi eta tabernetan. Antzokietan eta gainerako ikuskizunetan ezarritako zerbitzuak, zeinak ikuskizunaren orduetan bakarrik egoten baitira irekita.
9329	19691	Dantza-aretoak eta diskotekak

5.– Nolanahi ere, kanpoan geratuko dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak, edo beste erakunde batzuk, baldin eta administrazio publikoek edo haien mendeko erakundeek kapitalean edo gobernu-organoetan gehiengo partaidetza badute.

6.– Pertsona edo erakunde eskatzaileak EJSN kodean sartuta egon beharko du, edo, bestela, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda, 2021eko urtarrilaren 1ean eta 2021eko ekainaren 1ean.

7.– Ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen kasuan, bertan parte hartzen duten pertsona guztiak, fisiko zein juridiko pribatuak, pertsona onuraduntzat hartuko dira, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako eskakizunak eta baldintzak. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari bat izendatu beharko da, eta horrek nahikoa ahalorde izango ditu, elkarteari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko. Elkartea desegiten bada Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 39. eta 65. artikuluetan aurreikusitako preskripzio-epea igaro baino lehen, emandako dirulaguntza itzuli beharko du.

Horretarako, enpresa horiek erakunde onuraduneko kide bakoitzaren partaidetza-ehunekoa adieraziko dute aurkeztutako eskabidean.

8.– Pertsona eta erakunde onuradunek eskakizun hauek bete beharko dituzte, 2021eko ekainaren 1ean:

a) Egoitza soziala eta fiskala EAEn egotea eta establezimendua ere bertan egotea.

b) Agindu honen 3. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan zerrendatutako jardueraren batean aritzea, eta jarduera horrek COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko hartutako neurrien ondorioak pairatu izana.

c) Gaueko aisialdiko establezimendutzat hartzen den establezimendu baten titularra izatea gutxienez, agindu honetan xedatutakoaren arabera.

d) Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea, 2021eko ekainaren 1ean.

9.– Aurreko apartatuan jasotako eskakizunei nahitaez eutsi beharko zaie, gutxienez, laguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrerako lau hilabeteetan. Era berean, erakunde onuradunak EJZn alta emanda egon beharko du, gutxienez aldi horretan.

Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak onuradunek jarduerari eusten dioten egiaztatuko du, dagokion foru-ogasunari aitortutako ekonomia-jardueren datuak egiaztatzeko datu-bitartekaritza-

rako plataformak kontsultatuta. Hala ere, pertsona edo erakunde eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

10.– Aurreko apartatuetan aurreikusitako baldintzez gainera, pertsona eta erakunde onuradunek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta edukitzea.

c) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dien zehapen penalik edo administrazio-zehapenik, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere (sexuagatiko bereizkeriagatik sortutakoak barne), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoari jarraikiz.

d) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko eskakizunei dagokienez.

11.– Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzako Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du betetzen direla artikuluko 6., 7., 8. eta 9. zenbakietan ezarritako eskakizunak, datu-bitartekaritarako plataformei edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuei kontsulta eginez. Hala ere, pertsona edo erakunde eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, aurreko zenbakietan identifikatutako egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Halaber, Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzako Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du eskatzaileak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, emateko eta ordaintzeko ebazpena eman aurretik. Hala ere, eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio uko egiaztapen horri, eta, kasu horretan, eskakizuna hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kontura.

4. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez gauzatu dira.

2.– Pertsona edo erakunde onuradunari eman beharreko laguntzaren zenbatekoa ezartzeko, eskabideari dagokion establezimenduan 2021eko ekainaren 1ean alta-egoeran zeuden langileen kopurua hartuko da aintzakotzat, ondoren zehazten den moduan:

a) III. taldeko establezimenduak. Pubak eta taberna bereziak; itxiera-ordua, 02:30ean.

– 10 langile baino gutxiago: 10.000 euroko laguntza.

– 10 langile edo gehiago: 15.000 euroko laguntza.

b) IV. taldeko establezimenduak. Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak; itxiera-ordua, 04:30ean.

– 10 langile baino gutxiago: 15.000 euroko laguntza.

– 10 langile edo gehiago: 35.000 euroko laguntza.

Kasu guztietan ere, langile guztien zenbaketan autonomoak ez ezik, soldatapekoak ere sartuko dira, barne hartuta jardunean daudenak, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientean daudenak, lan-harremana etenda daukatenak eta jarduera utzita daudenak. Langile berak lantoki bakarrean egon ahalko du atxikita.

II. KAPITULUA

PROZEDURA

5. artikulua.– Eskabideak, dokumentazioa eta horiek aurkezteko epea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, goizeko bederatzietan, eta 15 egun baliodun geroago amaituko.

2.– Eskabide bat aurkeztuko da enpresa bakoitzeko; nolana ere, enpresa batek hainbat lantoki izan ditzake laguntza hauek eskatzeko.

3.– Erakunde eskatzaileek eskabidea eta xede horretarako aurreikusitako gainerako inprimakiak bete beharko dituzte; besteak beste, honako hauek:

3.1.– Erantzukizunpeko adierazpena, alderdi hauei buruzkoa:

a) Eskatzaileari buruzko datuak, langile autonomia, mikroenpresa, enpresa txikia edo ertaina, edo nortasun juridikorik gabeko taldea den zehaztuta; kasu horretan, kide bakoitzaren datu pertsonalak banakatu beharko dira. Datuen artean, berariaz zehaztu beharko dirulaguntza-eskabidearen xede den establezimenduaren edo establezimenduen kokapena eta izena, bai eta eskabidean aipatzen den establezimendua alta emanda dagoen jarduera ekonomikoen zergaren epigrafea ere.

b) Erakunde onuradun izateko deialdi honetan ezarritako eskakizunak betetzea.

c) Pertsona edo erakundea ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko eskakizunei dagokienez.

d) Mikroenpresatzat edo enpresa txiki edo ertaintzat hartzeko beharrezkoak diren baldintzak betetzea:

1) Lana ematea 250 pertsonari baino gutxiagori, eta, aurreko ekitaldiko abenduaren 31n, gehienez ere 50 milioi euroko urteko negozio-bolumena edukitzea, edo, gehienez ere, 43 milioi euroko urteko balantze orokorra edukitzea.

2) 250 langile edo gehiago dituen eta 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena duen enpresa batek ez izatea kapitalaren % 25eko edo gehiagoko partaidetzarik.

e) Langileei –autonomoak eta soldatapekoak– buruzko 2021eko ekainaren 1eko datuak, emakumezkoen eta gizonezkoen kopurua ez ezik, laguntzaren xede den establezimenduko edo lantokiko langile bakoitzaren Gizarte Segurantzako zenbakia ere adierazita.

f) Diruz laguntzea xede duen lantokia edo establezimendua EAEn egotea, edo, hala badagokio, jarduera EAEn burutzea, eta 2021eko urtarrilaren 1ean martxan egotea.

g) Ez izatea sozietate publiko bat edo zuzenbide publikoko erakunde bat, eta, erakunde horretan, administrazio publikoek edo haien mendeko erakundeek ez izatea gehiengo partaidetzarik haren kapitalean edo gobernu-organoetan.

h) Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo bidezko zehapen administratibo edo penalik, ezta laguntzak jasotzeko gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

i) Ez izatea inolako itzultze- edo zehatze-prozedurarik abian, ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak izaera berarekin emandako dirulaguntzen inguruan, ez haren erakunde autonomoek emandako dirulaguntzekin loturik.

j) Ez izatea dirulaguntza eta laguntza publikoak jasotzeko debekurik, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikulua dioenari jarraikiz.

k) Diruz laguntzeko eskatzen duen establezimendua agindu honetan gaueko aisialdiko establezimendutzat hartutakoaren artean dago.

Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzako Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak automatikoki egiaztatu ahal izango du f) apartatuan jasotakoa, datu-bitartekaritzako plataformei edo eskumena duen foru-aldundiko Ogasun Sailak horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuk kontsultatuta. Hala ere, pertsona edo erakunde eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, bere kabuz aurkeztu beharko ditu egiaztapena egiteko behar diren egiaztagiriak.

e) apartatuan jasotakoa frogatzeko, «Kotizazio-kontuaren kodeari dagokion lan-bizitzaren txostena» aurkeztu beharko da, 2021eko ekainaren 1ean kontratatuta zeuden langileak egiaztatzeko.

k) apartatuan jasotakoa egiaztatzeko, erakunde eskatzaileak dagokion udalaren jarduera- eta/edo irekiera-lizentzia aurkeztu beharko du (indarrean egon behar du 2021eko urtarrilaren 1ean). Bertan adierazi beharko da establezimendua III. edo IV. taldean sailkatuta dagoela eta baimendutako itxiera-ordua dagokiola, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

3.2.– Eskatzaileak EAEn dituen establezimendu bakoitzarentzat izango dira aipaturiko laguntzak, publikoari irekitako zerbitzuen eskaintza arrunta badute eta enpleguak badituzte haietan lanean. Lantoki bakoitzari atxikitako langile kopurua elementu erabakigarria izango da eman beharreko laguntza zenbaterakoan.

3.3.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izateko, erakunde eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan alta eman beharko du, edo bere banku-datuak aldatu. Aurrez aurre edo telematikoki egin ahal izango du hori, dagokionaren arabera, hemen zehazten diren argibideei jarraikiz: <https://www.euskadi.eus/altaterceros>

4.– Agindu honetan jasotako eskabideak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak elektronikoki egingo dira. Eskabidea eskuratzeko eta betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikora jo beharko da: <http://www.euskadi.eus/servicios/1204401> Hirugarrenen altaren edo aldaketaren kasuan, artikulua honetako 3.3 lerrokan agertzen den helbidea erabili beharko da.

Egoitza elektronikoki horretan egongo dira eskuragai elektronikoki nola izapidetu behar den argitzeko zehaztapenak, baita eskabide-eredua ere. Laguntzari buruzko informazio gehiago eskuratzeko: www.euskadi.eus/servicios/1204401

Elektronikoki izapidetutako eskabideen kasuan, eskatutako dokumentazio guztia jasotzean, erregistro elektronikoa data hartuko da aurkezpen-datatzat. Horietan guztietan, deialdi honetan eskatutakoaren arabera eskabidea osorik formalizatu duen uneari dagokion data hartuko da kontuan.

Espedientean sartzeko, jakinarazpenak jasotzeko, dokumentazioa aurkezteko eta prozedurarekin lotutako gainerako izapideak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioa baliatu behar da (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>).

Eskabidearekin batera, erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren edo erakundearen sinadura elektronikoa aitortuaz gain, harekin batera aurkeztu beharreko dokumentu guztiak eta Administrazioak urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera eska ditzakeenak ere aurkeztu beharko dira.

Ordezkaritza beste pertsona bati eman ahal izango zaio, haren izenean jardun dezan elektronikoki, agindu honi buruzko prozedura guztietan. Horretarako, honako hauek erabiliko dira:

– Ordezkarien Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa dagoena (<https://www.euskadi.eus/ordezkaririk/>), edo

– «Borondatezko legezko ordezkari egilestea inprimaki normalizatu» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normalizatu/>), behar bezala formalizatu; eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Pertsona juridikoen, gainera, erantsi beharko dute ordezkari-ahalordearen kopia, edo ahalorde-emailea erakunde ordezkari-emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen legezko zeinahi dokumentu.

Ordezkaririk (fisikoa edo juridikoa) identifikazio elektronikorako onartutako bitarteko bat izan beharko du egoitza elektronikoa.

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartzen diren identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Laguntza jasotzeko eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera. Era berean, laguntza-eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatu duen hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarritakoaren arabera.

6.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

6. artikulua.– Eskabideko akatsak zuzentzea.

1.– Eskabidea ez bada osorik bete, edo harekin batera ez bada aurkeztu 3.3 artikuluan eta 5.3.1 artikuluan adierazitako nahitaezko dokumentazioa, erakunde eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko zaio, hori egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, eta, horretarako, dagokion ebazpena emango da, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 68. artikuluan xedatutakoarekin.

2.– Jakinarazpenak elektronikoki egingo dira.

3.– Jakinarazpen-sistemak aukera emango du egiaztatzeko noiz eta zein ordutan jarri den eskuragarri jakinarazitako egintzaren edukia. Eskuragarri jarri dela frogatuta dagoenean eta edukia ikusi gabe hamar egun natural igarotzen direnean, jakinarazpena ukatu dela ondorioztatu, eta izapidea egindakotzat joko da. Beraz, prozedurak aurrera egingo du, ofizioz edo hartzaileak eskatuta jakinarazpena ikustea teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela egiaztatu ezean.

4.– Zuzenketak eta jakinarazpen elektronikokoak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

7. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko modua.

Onuradunei ordainketa bakarrean ordainduko zaie dirulaguntza, ematea erabaki eta eskatzai-leak onartu ondoren. Dirulaguntza onartuzat joko da, jakinarazpena egin eta hamar eguneko epean interesdunak berariaz uko egiten ez badio.

8. artikulua.– Eskabideak aztertzea eta ebaluatzea.

1.– Dirulaguntza-eskabideei erantzungo zaie, baldin eta zuzenketa eskatu behar ez bada, aurkezpenaren eguna eta ordua erreferentziatuz hartuta. Zuzenketa egin behar bada, eskabidea modu baliagarrian osatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu den eguna eta ordua hartuko dira erreferentziatuz, eta, betiere, deialdirako kreditu erabilgarriaren mugara arte, eta erabilitako kredituaren arabera.

2.– Onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen direla kontuan hartuta emango dira, eta ez da beharrezkoa izango eskabideen arteko alderaketarik egitea, ezta eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezartzea ere.

3.– 2. artikuluan ezarritako aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, utzi egingo zaio laguntza berriak emateari, eta ebazteke dauden eskabideak ezetsi egingo dira. Hori horrela, ebazpena eman duen organoak kreditua agortu dela jakinaraziko du, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den ebazpen baten bidez.

Hasierako zuzkidura areagotzen bada, berriro ekingo zaio laguntzak emateari, eta hasierako zuzkidura agortu izanagatik laguntzarik gabe geratu direnek izango dute lehentasuna, dagokien ordenaren eta sistematika beraren arabera.

4.– Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzako langileei dagokie aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea. Eskabide horiek egoki ulertu eta ebaluatzeko, beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio eta/edo informazio osagarria eskatu ahal izango dute edozein unetan.

9. artikulua.– Dirulaguntza ebaztea eta ordaintzea.

1.– Turismo eta Ostalaritzako zuzendariak gehienez ere sei hilabeteko epean ebartziko ditu eskabideak bata bestearen jarraian, eskabidea osorik formalizatzen den unea kontuan hartuta, eskabidea osorik aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, eta arrazoietan oinarritutako ebazpena emango du aurkeztutako dirulaguntza-eskabide bakoitzari dagokionez.

2.– Ebazpenak banan-banan jakinaraziko dira, gehienez ere sei hilabeteko epean, eskabidea osorik formalizatzen denetik aurrera, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu jakinarazpen-ondorioak; hargatik eragotzi gabe diruz lagundutako eskabideen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Sei hilabete igarotzen badira ebazpenik eman eta jakinarazi gabe, pertsona edo entitate interesdunak ezetsizat jo ahal izango du bere uzia, hargatik eragotzi gabe organo eskudunak berariazko ebazpena emateko duen betebeharra.

3.– Turismo eta Merkataritza Sailburuordetzako Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak jakinarazpenaren argitalpenaren abisuak bidali ahal izango dizkie interesdunei, SMS edo posta elektronikoz bidez, eskabide-inprimakian adierazitako telefono mugikorreko zenbakietara eta posta elektronikoko kontuetara. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondorerik izango, eta abisu hori egin ez izanak ez du eragotziko jakinarazpena guztiz baliozkotzat jotzea.

4.– Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaituko, eta, haren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Turismo eta Merkataritzako sailburuordeari, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5.– Dirulaguntzaren zenbatekotik kendu egingo dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) konturako atxikpenak, zerga arautzen duen araudia aplikatuta dagozkionak. Era berean, emandako dirulaguntza guztien berri emango zaie zerga-agintariei, indarrean dagoen zerga-araudian ezarritako baldintzetan eta ondorioetarako.

10. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak izango dira azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategizaren 50.2 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1, 18.3 eta 46. artikuluetan jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Jardueran alta emanda egotea, eta 3.3 artikuluan adierazitako kolektibo onuradunetako baten barruan egotea, gutxienez lau hilabetez, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

b) Finantzatutako jardueran gutxienez lau hilabetez aritzea jarraian, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

c) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, onuradunari laguntza eman zaiola jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean onuradunak ez badio uko egiten dirulaguntzari berariaz eta idatziz, ulertuko da onartu egin duela.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eginkizunetan dihardutela, deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruzko informazioa ematea.

e) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoak betetzea, eta bere gain hartzea 4/2005 Legeak Administrazioaren laguntzak kontratatzen, adosten edo jasotzen dituzten erakundeei ezartzen dizkien betebeharrak.

11. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, emandako dirulaguntza ere aldatu egingo da, betiere deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak betetzen badira. Baldintzak aldatzearen ondorioz emandako dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedura hasiko da. Horretarako, Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, emandako dirulaguntzen zenbatekoak doitzeko.

12. artikulua.– Bestelako laguntzekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honen babespean lortutako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuetatik eta/edo erakunde pribatuetatik jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina.

2.– Laguntzaren zenbatekoak, beste laguntza batzuk batuta, ezin izango du gainditu diruz lagundutako kontzeptuaren kostua. Zenbateko hori gaindituz gero, soberakinari dagokion kopururaino murriztuko da agindu honi jarraikiz emandako laguntza.

3.– Estatuko laguntzen araudia betetzeari dagokionez, laguntza hau Estatuko Laguntza Neurrien Aldi Baterako Esparruarekin bat etorri eratu da, egungo COVID-19 agerraldian ekonomia babesteko (DO C 91I de 20.3.2020, p. 1), Batzordearen C (2020) 2215 Jakinarazpenak, (2020.4.4ko DO C 112I, 1. orr.), C(2020) 3156 (2020.5.13ko DO C 164, 3. orr.), C(2020) 4509 (2020.7.2ko DO C 218, 3. orr.), C(2020) 7127 (2020.10.13ko DO C 340I, 1. orr.) eta C(2021) 564 (2021.2.1eko DO C 34, 6. orr.) jakinarazpenek aldatua; eta Europako Batzordeak apirilaren 2ko SA.56851 (2020/N) Erabakian onartutako enpresei eta autonomoei laguntzeko neurriei buruzko denbora-esparru nazionala (dirulaguntza zuzenak, itzul daitezkeen aurrerakinak, zerga-arloko abantailak, mailegu-bermeak eta interes-tasekin lotutako hobariak), COVID-19aren gaur egungo agerraldiaren testuinguruan ekonomia babesteko helburuarekin, baita hark erabaki hauetan onartutako ondorengo aldaketak ere: SA.57019 (2020/N), 2020ko apirilaren 24koa; SA.59196 (2020/N), 2020ko abenduaren 11koa, eta SA.59723 (2020/N), 2021eko otsailaren 19koa.

13. artikulua.– Baldintzak egiaztatzea.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egoki iritzitako egiaztapenak egin ahal izango ditu dirulaguntzen deialdi honetako baldintzak hobeto ezagutze aldera, eta enpresa onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman beharko dute.

14. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Enpresa onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko Legearen (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) 37. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean badago, Turismo eta Ostalari-tzako zuzendariak, ez-betetzeari buruzko espediente egin ondoren –non erakunde interesdunari entzungo zaion– adieraziko du, ebazpen bidez, erabat edo zati batean galdu duela dirulaguntza eskuratzeko eskubidea, eta, hala badagokio, aginduko du Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzul diezazkiola jasotako zenbatekoak, osorik edo zati batean, gauzapen-mailarekiko proportzioan, bai eta berandutze-interesak ere, hala baitiote Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, eta, diru-itzulketa partzialari dagokionez, 38/2003 Legearen 37. artikuluan zehazten duenaren arabera. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, dagozkien legezko ondorioetarako. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, dagozkien legezko ondorioetarako.

2.– Ez-betetzearen espediente hori <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta> egoitza elektronikoaren bidez izapidetuko da, interesdunak legitimoki beste bat eskatu ezean.

15. artikulua.– Datu pertsonalak.

Eskatzaileen datu pertsonalak «Turismo-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira. Honako hauetan ezarritakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak

Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.

16. artikulua.– Dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko araudia.

Laguntzen programa honi dirulaguntzen arloko arau hauetan bildutako oinarrizko araubide juridikoa aplikatu behar zaio: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua). Hori guztia, ezertan eragotzi gabe honako hauetan xedatutakoa: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua –testu bategin hori azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen– eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren konturako dirulaguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra, eta bertan ezarri baitziren horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen eskakizunak, araubidea eta betebeharrak.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioket Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean. Bi kasuetan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 7a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.

2021eko irailaren 15a, asteazkena

ERANSKINA

GAUEKO AISIALDIKO ESTABLEZIMENDUEN TITULARRENTZAKO LAGUNTZAK

(KODEA: 1204401)

ESKABIDEA

- Eskatzailea:
- Ordezkaria:

Instrukzio-organo honi zuzendua: TURISMO ETA OSTALARITZA ZUZENDARITZA

DATU PERTSONALAK

Identitate-datuak**Eskatzailea**

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Pertsona juridikoa bada:

Erakundearen izena:

Pertsona fisikoa bada:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea

Ordezkaria

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: ○ Gizona ○ Emakumea

2021eko irailaren 15a, asteazkena

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

JAKINARAZPENEN HARTZAILEA

HONAKO HONI BIDERATUKO ZAIZKIO ADMINISTRAZIOAREN JAKINARAZPENAK, ESPEDIENTE HONEN IZAPIDETZE-PROZESUAN ZEHAR:

JAKINARAZPEN, KOMUNIKAZIO ETA ABISUETARAKO HIZKUNTZA

- EUSKARA ○ GAZTELANIA

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Telematikoa: *Nire karpeta* ataleko *jakinarazpenen eta komunikazioen erretilura* helaraziko dira jakinarazpenak eta komunikazioak. Han sartzeko, ezinbestekoa da identifikazio elektronikoko bitarteko bat erabiltzea.

Jakinarazpen eta komunikazioen abisuak jasotzeko datuak:

Helbide elektronikoa:

Telefono mugikorra:

DATUAK ERABILTZEKO BAIMENA

- BAI, ONARTZEN DUT NIRE KOMUNIKAZIO- ETA ABISU-DATUAK ORO HAR BALIATZEA EUSKO JAURLARITZAREN SAILEKIN ETA ORGANISMOEKIN DITUDAN HARREMANETAN.
- EZ, ESPEDIENTE HAU KUDEATZEKO BESTERIK EZ ERABILI NIRE KOMUNIKAZIO- ETA ABISU-DATUAK.

OINARRIZKO DATUAK

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde historikotan dauden

Lurralde Historikoa / autonomia-erkidegoa / Probintzia: ○ Araba ○ Bizkaia ○ Gipuzkoa

Datu-babesari buruzko oinarrizko informazioa

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak «Turismo-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

• **Arduraduna:** Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritza.

• **Xedea:** Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak turismo-arloan deitutako laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzea eta kontrolatzea.

• **Legitimazioa:**

- Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean misio bat egiteko edo tratamenduaren arduradunari aitortzen zaizkion botere publikoak egikaritzeko.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.

• **Hartzaileak:**

- Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa
- Interesdun legitimoak
- Europar Batasuneko organoak
- Organo judizialak
- Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk

• **Eskubideak:** Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, eta badituzu informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

2021eko irailaren 15a, asteazkena

• **Informazio gehigarria:** Gure webgunean kontsultatu dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xedea (www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/77600-cap2-es.shtml)

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

ERAKUNDE ESKATZAILEAREN TIPOLOGIA

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte norberaren konturako langileek edo autonomoek, ondasun-erkidegoek, sozietate zibilek, nortasun juridikorik gabeko unitate ekonomiko edo ondare berezia osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeek eta gaueko aisialdiko establezimenduen titular diren mikro-enpresek eta enpresa txiki eta ertainek, halakotzat hartuta III. taldean sailkatutako pub eta taberna bereziak, eta IV. taldean sailkatutako dantza- eta dibertsio-establezimenduak, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 32.2 artikulua araber, baldin eta jarduera eta epigrafe honetan alta emanda badago Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalan edo, agindu honen ondorioetarako baliokide, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan:

EJSN kodea	EJZ epigrafea	Epigrafearen testua
5630	16731	Kafetegi eta tabernetan. Kategoria berezikoak.
5630	16732	Kafetegi eta tabernetan. Bestelako kafetegi eta tabernak.
5630	16746	Kafetegi eta tabernetan. Antzokietan eta gainerako ikuskizunetan ezarritako zerbitzuak, zeinak ikuskizunaren orduetan bakarrik egoten baitira irekita.
9329	19691	Dantza-aretoak eta diskotekak

ERAKUNDE ESKATZAILEAK BETE BEHARREKO ESKAKIZUNAK

- Pertsona edo erakunde eskatzaileak Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoko Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egon beharko du (ikus inprimaki honetako Hirugarrenen Datuen Aldaketa edo Alta izeneko atala).
- Jarduteko eta/edo irekitzeko lizentzia, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean dagoena, dagokion udalak emana. Eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, eta bertan adierazi beharko da establezimendua III. edo IV. taldeko kategoriei dagokiela, bai eta ixteko ordutegi baimendua ere, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan aurreikusitakoarekin bat etorritz.
- Pertsona edo erakunde eskatzaileak EJSN kodean sartuta egon beharko du, edo, bestela, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda, 2021eko urtarrilaren 1ean eta 2021eko ekainaren 1ean.
- Pertsona eta erakunde onuradunek eskakizun hauek bete beharko dituzte 2021eko ekainaren 1ean:
 - Egoitza soziala eta fiskala EAEn egotea eta establezimendua ere bertan egotea.
 - Agindu honen 3. artikulua 3. eta 4. apartatuetan zerrendatutako jardueraren batean aritzea, eta jarduera horrek COVID-19ak eragindako krisi sanitarioa kudeatzeko hartutako neurrien ondorioak pairatu izana.
 - Gaueko aisialdiko establezimendutzat hartzen den establezimendu baten titularra izatea gutxienez, agindu honetan xedatutakoaren araber.
 - Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea 2021eko ekainaren 1ean.
4. apartatua jasotako eskakizunei nahitaez eutsi beharko zaie, gutxienez, laguntza eskatzeko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrerako lau hilabeteetan. Era berean, erakunde onuradunak EJZn alta emanda egon beharko du, gutxienez aldi horretan.

6. Ondasun-erkidegoen, sozietate zibilen, nortasun juridikorik gabeko unitate ekonomiko edo ondare bereizia osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeen kasuan, horietan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko pribatu guztiak hartuko dira onuraduntzat, eta haiek guztiak bete beharko dituzte ezarritako eskakizun eta baldintzak.
7. Egunean edukitzea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
8. Egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa.
9. Ez izatea dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duen zehapen penal edo administratiborik, eta ez izatea horretarako desgaitzen duen lege-debekurik (sexuagatiko diskriminazioagatik sortutakoak barne), Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoari jarraikiz.
10. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikularen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko betekizunei dagokienez.
11. Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du betetzen dela 3., 4., 5., 6. eta 7. zenbakietan ezarritakoa, horretarako gaitutako datu-bitartekaritzako plataformei edo bestelako sistema elektronikoei kontsulta eginez. Hala ere, pertsona edo erakunde eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri, eta, kasu horretan, aurreko zenbakietan identifikatutako egiaztagirak aurkeztu beharko ditu.

DATU OSAGARRIAK**Legezko ordezkaria:**

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: Gizona Emakumea

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: Gizona Emakumea*Nahi bestetan errepikatu.***Erakunde eskatzailearen egoitza soziala**

Posta-kodea: Probintzia:

Udalerria Herria:

Helbidea: Zk. Eskailera

Solairua Letra

2021eko irailaren 15a, asteazkena

Harremanetarako pertsona:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: Gizona Emakumea

Telefono-zenbakia:

Helbide elektronikoa:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: Gizona Emakumea

Telefono-zenbakia:

Helbide elektronikoa:

*Nahi bestetan erreplikatu.***HIRUGARRENEN DATUAK**

- **Alta emanda dago hirugarren gisa, eta ez du daturik aldatu nahi.**
- **Hirugarrenen datuen alta** **Hirugarrenen datuak aldatzea**

Hauek dira banku-datuak baliozkotzeko pasabideari atxikita dauden erakundeak: *Kutxabank-Bankoa-Banco Santander-Laboral Kutxa-CaixaBank-BBVA-Sabadell-Banco Popular-Rural Kutxa.*

- **Pertsona juridikoak:**

Bete datu hauek:

IBAN																				
-------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Horretaz gainera:

- Banku-datuak baliozkotzeko pasabidearekin bat egindako erakundeetako banku-kontua

Kanal telematikoaren bidez eman behar da alta: https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/index.shtml

- Banku-datuak baliozkotzeko pasabidearekin **bat egin gabeko** erakundeetako banku-kontua

Bete http://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/adjuntos/ALTA.pdf dokumentua,

eta atxiki eskabidera, banku-erakundeak emandako titulartasun-ziurtagiriarekin batera

- Sozietate zibilen eta ondasun-erkidegoen kasuan, banku-erakundea edozein dela ere, beharrezkoa da banku-erakundeak emandako titulartasun-ziurtagiria aurkeztea, non parte-hartzaile guztiak baimendutzat agertu beharko baitira.

- **Pertsona fisikoak:**

Bete datu hauek:

IBAN																				
-------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

Titularra:

(Bat etorri behar du eskabidearen titularraren datuekin eta NANean ageri direnekin)

Helbide elektronikoa:

Telefono mugikorra:

Horretaz gainera:

- Banku-datuak baliozkotzeko pasabidearekin bat egindako erakundeetako banku-kontua.

Bete dokumentu hau: http://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/adjuntos/ALTA.pdf eta atxiki eskabideari.

Kanal telematikoaren bidez ere eman daiteke alta: https://www.euskadi.eus/web01-s2oga/eu/contenidos/informacion/regtelter_infor/eu_rtt/index.shtml

- Banku-datuak baliozkotzeko pasabidearekin **bat egin gabeko** erakundeetako banku-kontua

Bete http://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/adjuntos/ALTA.pdf dokumentua, banku erakundeak zigiturik eta sinaturik, eta atxiki eskabideari.

2021eko irailaren 15a, asteazkena

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK**Laguntzaren pertsona edo erakunde onuraduna izateari dagokionez:**

a. Eskatzailearen tipologia:

- o Autonomoa
- o Mikroenpresa
- o Enpresa txikia
- o Enpresa ertaina
- o Nortasun juridikorik gabeko elkarte

Bete ondasun-erkidegoko edo sozietate zibileko parte-hartzaileen datuak, deialdiaren eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko.

Identifikazio-dokumentua	Zenbakia	Izena	Lehen abizena	Bigarren abizena	Sexua	Partaidetza-portzentajea

Nahi bestetan errepikatu.

b. Establezimenduari buruzko datuak.

Establezimenduaren izena:

Bera al dira establezimenduaren kokalekua edo jarduera gauzatzen den tokia eta titularraren helbidea? o Bai o Ez

Posta-kodea: Probintzia:

Udalerrria: Herria:

Helbidea: Zk. Eskailera

Solairua Letra

Establezimendua zer epigrafeekin alta emanda dagoen ekonomia-jardueren gaineko zergan:

EJZn alta emandako data:

- c. Pertsona edo erakundea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, dirulaguntzen onuradun izateko eskakizunei dagokienez.
- d. Enpresa izanez gero, betetzen dituela mikroenpresa edo enpresa txiki edo ertain gisa kalifikatzeko behar diren eskakizunak:
 - 1.- 250 langile baino gutxiago izatea, eta deialdi honen aurreko ekitaldiko abenduaren 31n gehienez 50 milioi euroko negozio-bolumena edukitzea, edo urteko balantzea gehienez 43 milioi eurokoa izatea.
 - 2.- 250 langile edo gehiago dituen eta 50 milioi euro baino gehiagoko negozio-bolumena duen enpresa batek ez duela kapitalaren % 25eko edo gehiagoko partaidetzarik.
- e. Hauek direla plantillari buruzko datuak 2021eko ekainaren 1ean:
 - 1. Hau dela plantilla osoa 2021eko ekainaren 1ean (autonomoak eta soldatapekoak barnean harturik):
Gizonak: Emakumeak: Plantilla, guztira
- f.- Hau dela erakunde eskatzaileak 2021eko urtarrilaren 1ean garatutako jarduera:
 - a) III. taldea: ixteko ordua, 02:30ean.
 - Pubak eta taberna bereziak
 - b) IV. taldea: ixteko ordutegia 4:30ean.
 - Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak.
- g.- Hau dela laguntza eskatzen den establezimenduko langileen kopurua 2021eko ekainaren 1ean:
 - o 10 langile baino gutxiagoko establezimenduak
 - o 10 langile edo gehiagoko establezimenduak
- h.- Hau dela laguntza eskatzen den establezimenduko edo lantokiko langile bakoitzaren Gizarte Segurantzako zenbakia:

	Gizarte Segurantzako zk.	Autonomoa	Soldatapekoa
1		•	•
2		•	•
3		•	•
4		•	•
5		•	•
6		•	•
7		•	•
8		•	•
9		•	•
10		•	•
11		•	•
12		•	•

13		•	•
14		•	•
15		•	•

Nahi bestetan errepikatu.

Laguntzaren xede den lantokia edo establezimendua EAEn dagoela edo, hala badagokio, jarduera EAEn garatzen duela, eta orobat martxan zegoela 2021eko urtarrilaren 1ean.

Ez izatea sozietate publiko bat edo zuzenbide publikoko erakunde bat, eta, erakunde horretan, administrazio publikoek edo haien mendeko erakundeek ez izatea gehiengo partaidetzarik haren kapitalean edo gobernu-organoetan.

Zehapenei dagokienez:

- Ez daukala dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penal edo administratibo irmorik eta ez daukala horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.
- Ez daukala inolako itzulketa- edo zehapen-prozedurarik abian, ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ez haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasitakorik.
- Ez dagoela zigortuta dirulaguntzen eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikulua araber.

Eskabideko datuei dagokienez:

- Indarrean dauden arauetan ezarritako eskakizunak betetzen dituela.
- Egiazkoak eta ondo osatuak direla eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten dudak dokumentazioa ere, eta nire gain hartzen dudala dagokidan erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada, edo adierazpena bera aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkeztu deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatze eskatzen den dokumentazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jarduera egiten jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**1.– Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:**

- Beharrezkoa bada, hirugarrenaren alta edo datu-aldaketa
 - Beharrezkoa bada, banku-titulartasunaren ziurtagiria
 - Kotizazio-kontuaren kode baten eta/edo autonomoen lan-bizitzari buruzko txostena
 - Jarduteko eta/edo irekitzeko lizentzia, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean dagoena, dagokion udalak emana.
- Eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, eta bertan adierazi beharko da establezimendua III. edo IV. taldeko kategoriei dagokiela, bai eta ixteko ordutegi baimendua ere, bat etorritz Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan aurreikusitakoarekin.

2.– Agiriak ez aurkezteko eskubidea-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzea.**Gizarte Segurantzza**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta berariaz horren aurka ez bazaude, jakinarazten dizugu Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak, bere eskumenak baliatuz, honako dokumentu hauek eskuratuko dituela bitarteko elektronikoen bidez:

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituzula egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren epigrafeen datuak.
- Identifikazio fiskaleko agiria, pertsona juridikoaren kasuan.
- Nortasun-datuaren egiaztapena (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia), pertsona fisikoaren kasuan.

Horren aurka agertzen bazara, eskabidearekin batera aurkeztu beharko dituzu agiriak.

INFORMAZIO GEHIGARRIA**Datu pertsonalak egiaztatzea.**

Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, jakinarazten zaizu Turismo eta Ostalaritza Zuzendaritzak, bere eskumenak baliatuz, behar diren egiaztapenak egingo dituela, eskabide honetan aitortutako eta administrazio publikoen esku dauden datu pertsonalen zehaztasuna egiaztatzeko.

Eskabidearen sinadura: